

# ALCEDO

– ARABA / ÁLAVA –

Lantarón udalerriaren barruan dago Alcedo herrixka. Arabako hiriburutik 49 kilometrora dago, eta handik iristeko N-1 hartzea da bidea, Burgos-Madril alderantz eginda. Gasteiz atzean utzi eta jarraian, Langraiz Okara heldu orduko, 340 irteera hartu behar da Los Llanos industrialderantz; eta handik Pobesko zeharbidean aurrera egin, eta A-2622 errepidetik ondoren. Paul eta Gesaltza Añanan zehar, Espejo baino lehenagoko bidegurutze bateraino jarraitu behar dugu. Han gaudela, ezkerretara dago Bergondako bidea, A-2625. Behin Bergondara iritsira, A-2625 bidea hartu behar, Villambrosa alderantz. Kilometro gutxira dago Alcedo.

Omecillo ibaiaren ezker ibarrean, lautada batean dago herria, lursail harritsu eta landaredi eskasekoan. Ordoki honetatik kilometro gutxira dago Villambrosa, *Villa Merosa* izenez aipatu zuen IX. mendean Fredulfo gotzainak Valpuestako Andre Mariaren elizako agiritan, bera Alcedokoa baitzen. Gaur egun arte iritsi zaizkigun albisteen artean dugu X. mendearen erdialdean, mahastiak zeuzkatela Valpuestako erlijiosoek eta itun bat egin omen zutela Alcedoko bizilagunekin, mahatsondo guztiak jagoteko.

X. mendearen hasierako izkribuetan *Elzeto* izena ageri da herria izendatzeko. Forma horretatik, gizaldietan aurrera egin ahala, *Elcedo*, *Elcetu* eta *Olcedo* bilakatu da, eta azkenean, 1164an, Alzedo izena dator. Cerezoko Barrutiaren parte izan zen, Bergonda, Bachicabo, Nograro, Quejo, San Zadornil eta Gaubeako eta Lantarongo beste herrixka batzuekin batera.

1065ean, baten gaur egungo herritik hurbil, Alcedoko Santiagoko monasterioa. Valpuestako Andre Mariaren parte izatera pasatu zen gero, dohaintza baten bitartez, agirik dioten bezala.

Lehendabiziko Donejakue Bidetik hurbil, eta, batik-bat, Ebro ibaiaren ondoan, Gesaltza Añanatik hurbil zegoenez, Erdi Aroko Arabako gune estrategikoa bilakatu zen. Solorzano familiak pribilegio handiak izan zituen inguruan, Gaztelako Kondestablea jabe izatera iritsi baino lehen.

Lantarón udalaren barruan dago gaur egun, 1978. urtean bat egin baitzuten Bergondak eta Alcedok.

Alcedo es una pequeña población perteneciente al municipio de Lantarón. Se sitúa a 49 km de la capital alavesa, desde la que se accede por la N-1 en dirección Burgos-Madrid. Una vez rebasada la ciudad de Vitoria, poco antes de Nanclares de la Oca, hay que tomar la salida 340 del polígono industrial de Los Llanos, y desde allí continuar por la travesía de Pobes por la carretera A-2622. Esta vía lleva por Paúl y Salinas de Añana hasta un cruce pocos kilómetros antes de Espejo, donde se gira hacia la izquierda por la A-2625 de Bergüenda. En este pueblo se toma la A-2625 en dirección a Villambrosa. A pocos kilómetros de este desvío, está Alcedo.

La aldea está en un llano a la orilla izquierda del río Omecillo, en terreno pedregoso y con poca vegetación. A pocos kilómetros de esta planicie está Villambrosa, la *Villa Merosa*, de la que habla en el siglo IX el obispo Fredulfo, natural de Alcedo, en los escritos antiguos de la iglesia de Santa María de Valpueda. Entre las noticias que nos han llegado, encontramos, a mediados del siglo X, la existencia de una plantación de viñedos de los religiosos de Valpueda, y un acuerdo con los vecinos de Alcedo para poner un guardián que vigilara las viñas.

A principios del siglo X, las fuentes escritas recogen esta localidad bajo el nombre de *Elzeto*, que a lo largo de los siglos deriva en *Elcedo*, *Elcetu*, *Olcedo*, hasta que en 1164 aparece como Alzedo. Perteneció al Alfoz de Cerezo, junto a Bergüenda, Bachicabo, Nograro, Quejo y San Zadornil, entre otras aldeas del Valle de Valdegovía y Lantarón.

En 1065 existía, cerca de la actual localidad, el monasterio de Santiago de Alcedo, que más tarde pasó a formar parte del de Santa María de Valpueda, donde encontramos en la documentación escrita, una donación que así lo confirma.

Su situación entre las primeras rutas jacobeanas y, sobre todo, su proximidad a Salinas de Añana en su paso hacia el río Ebro, hizo de este núcleo un punto estratégico en la Álava medieval. La familia Solórzano ocupó un lugar privilegiado en la zona, antes de pasar a ser propiedad del Condestable de Castilla.

Actualmente pertenece al término municipal de Lantarón, que surgió de la fusión en 1978 de los municipios de Bergüenda y Alcedo.

## San Martin eliza / Iglesia de San Martín

**A**LCEDOREN ERDIAN dago eliza, Tourseko San Martini eskainia, inguruko beste eliza batzuen moduan; esaterako, Turiso, Bachicabo eta Lacorzana elizen moduan. Santu horrenganako debozioa Donejakue Bide nagusiekin lotuta dator. Diotenez, IV. mendeko santu horrek bizimodu militarra utzi zuen, ebanjelioa zabaltzeko. Donejakue Bideari lotuta, beraz, Errioxan eta Burgoseko iparraldean ere beronen omenezko elizak aurkitzen ditugu.

Eraikinaren hasierako egitura erabat galduta dago, hainbat bider berritu eta handitu izan dutelako: burualdearen ondoan jarritako kanpandorra, erdi-puntuko arku bikoitzeko eliz atari zabala den sarrera, eta teilatuak ere aldatu zituzten. Aparailu mota desberdina bistan da kanpoko hormetan; horrek erakusten dizkigu egindako berrikuntza guztiak.

Oinplano angeluzuzeneko dorrea erdiko nabea eta ondoko atalak baino garaiagoa da. Kanpaiak babesten, erdi-puntuko arku bi, hegoan eta mendebaldean. Beste al-

**E**STE EDIFICIO se presenta hoy en pleno centro urbano de Alcedo. Está dedicado a San Martín de Tours, al igual que otras iglesias de la zona, como por ejemplo Turiso, Bachicabo o Lacorzana. La devoción a este santo del siglo IV, que abandonó su vida militar para dedicarse a evangelizar, ha de relacionarse con las rutas de peregrinaje más importantes a Santiago de Compostela, motivo por el cual encontramos varias iglesias dedicadas a él en La Rioja y en el norte de Burgos.

La estructura original del edificio se ha perdido por completo bajo las numerosas reformas y ampliaciones que ha sufrido, como la torre-campanario situada a los pies de la cabecera, el amplio pórtico de doble arcada de medio punto por el que se accede al interior del edificio, o el cambio de cubiertas. El distinto tipo de aparejo, visible en los muros externos del templo, confirma estas transformaciones.

La torre de planta rectangular sobresale en altura con respecto a la nave central y los habitáculos anejos. Las

Kanpoaldea / Exterior





*Hegoaldeko bormako leiboa*

*Ventana del muro sur*



*Mentsula gizonen buruekin*

*Ménsula con cabezas masculinas*



*Portadako xebetetasuna / Detalle de la portada*

de bietan, berriz, bao karratu batzuk ageri dira, estalkiari garaiera aldatutakoan kaltetuak.

Eraikinaren alde horretan, dorrearen erdi inguruan, molduradun kapitel bat ageri da lekuz kanpo, eraikuntza-funtziorik gabe. Bi gizonezkoren buruak elkarren kontra. Antzeko ezaugarriak dituzte biek, orrazkeran baino ez dago alde apur bat. Oso aurpegiera markatua daukate: begi nabarmenak, belarri txiki-txikiak, sudur handia, ezpain lodiak eta bizar kizkur geometrikoa.

Bao gutxi ditu eraikin horrek, eta bakoitza modu batekoa. Nabarmentzekoak dira iparreko horman dauden bao txarabeldua eta beste handi eta apainduago bat. Erdi-puntuko leihatea dugu bigarrena, alakatu bakunekoak; landare-motiboz apaindutako arkibolta eta kapiteletan giza aurpegiak dituzten bi zutaberen barruan. Arkiboltak ere

campanas quedan resguardadas por dos arcos de medio punto, al Sur y Oeste, mientras que los lados norte y sur quedan ocupados por pequeños vanos cuadrados, afectados por el cambio de altura en la cubierta.

En este lado del edificio, a media altura del cuerpo de la torre, encontramos un capitel descontextualizado bajo una moldura, sin ninguna función constructiva. Son dos cabezas de varón contrapuestas. Se muestran con características muy similares, diferenciadas ligeramente en su tocado. Tienen rasgos muy marcados, ojos saltones, orejas muy pequeñas, nariz prominente, labios carnosos y barba con pequeños rizos geometrizados repetidos.

Este edificio posee pocos vanos y de distinta factura. Los más destacables son un vano abocinado en su muro norte, y otro de mayor tamaño y mayor riqueza ornamental. Se trata este último de un ventanal de arco de medio punto, con un sencillo biselado que queda al interior de una arquivolta decorada con motivos vegetales y dos columnas con rostros humanos en sus capiteles. Las arquivoltas se muestran abocinadas, y se distribuyen en dos partes. La orla exterior, que cierra el conjunto y sobresale del muro, está formada por una estrecha decoración de dientes de sierra y dos bandas de semicírculos contrapuestos, inclinadas hacia el interior del vano. La otra arquivolta tiene unas grandes flores abiertas, con cuatro estrechos pétalos cada una, que se repiten de forma seriada. En el mismo borde inclinado encontramos otra decoración de trenzado de pequeñas bolas. En la parte interior de las dovelas se puede entrever una decoración muy similar a esta última, con motivos vegetales que se repiten. Bajo la moldura de las líneas de imposta aparecen los capiteles antropomorfos. Representan cabezas de un hombre y una mujer, a izquierda y derecha respectivamente. Tienen rasgos muy similares a los que ya se han descrito en el capitel del muro oeste de la torre: ojos saltones y nariz pronunciada, pero con orejas de mayor tamaño y con tocados diferentes. El varón muestra un peinado finamente trabajado, a modo de mechones ondulados, mientras que la figura femenina lleva una corta melena lisa que oculta sus orejas. Tiene dos ramilletes de hojas alargadas en los laterales. Este tema decorativo de la dama y el caballero es muy característico del románico alavés del siglo XIII.

Bajo estos capiteles encontramos los collarinos sencillos, sin decoración, desde donde arrancan los fustes de las columnas, también sin ornamentación y lisos. Las columnas no llegan hasta el alféizar, sino que el toro y la escocia en la base de cada columna se apoyan sobre dos sillares que sobresalen del muro.

Entre los elementos anejos al edificio destaca el amplio pórtico, con dos grandes arcadas de medio punto

txaranbelduak dira, zati bitan banatuta. Kanpoko orla, hormatik kanpo multzoari osaera ematen, zerra-hortzekin eta zirkuluerdi kontrajarrien zerrenda birekin dago apainduta, leihoaren barrurantz okertuak. Beste arkiboltak lore handi batzuk ditu, launa petalo esturekin, eta segida bat osatzen dute. Ertz okertu berean bola txiki txirikordatuek osatzen dute apaingarria. Dobelen barruan, ostera, azken horren antzeko dekorazioa nabari da, behin eta berriro errepikatzen diren landare-irudiz osatuta. Inposta-lerroen molduraren azpian, berriz, kapitel antropomorfoak. Gizon baten eta emakume baten buruak dira, ezker-eskuinean. Dorreko mendebaldeko horman den kapitelaren ezaugarrien antzekoak dituzte horiek ere: begi nabarmenak eta sudur handia, baina belarriak handiagoak eta orrazkera desberdina dute. Gizonezkoaren irudian orrazkera landua azaltzen da, ile-xerlo kizkurrak; emakumezkoak, berriz, ile labur leunda, belarriak estalita. Hosto luzeen sortatxo bana du alboetan. Dama eta Zaldunaren dekorazio hori askotan azaltzen da Arabako XIII. mendeko erromanikoan.

Kapitel horien azpian, lepoko bakunak ageri dira, apaindurarik gabeak, eta bertatik gora doaz zutabeetako fusteak; horiek ere lauak dira, eta ez dute apaingarririk. Zutabeok ez dira ertzeraino iristen, zutabe bakoitzaren oinarrian diren zezenari eta eskoziari hormatik ateratzen diren bi harlanduk eusten baitiete.

Eraikinari gerora erantsitako elementuen artean nabarmentzekoa da elizpe zabala, apaindurarik gabeko erdi-puntuko bi arkuperekin. Bertan da portada: erdi-puntuko arku bat, dobelen kanpoaldea inguratzen duen banda batekin. Landare-irudi geometrikoz dago apainduta, palmeta haragitsuen irudi-segida batekin. Motibo bera ageri da arkuaren barruko apainduran, baita elizaren barruan, bataiarrian ere.

Elizpe horretan dugu, bazter batean, ur bedeinkatuen harria. Kurbatura eta sakonera gutxiko kopa baldar bat da, oso gutxi landua. Zilindro baten gainean dago, eta moldura txiki batek bereizten du oinarritik.

Gurutze-estalkia du elizak, karea du emanda erdiko nabean, eta gurutze-ganga gotikoak alboetako kaperetan. Ezkerreko kaperak erliebeak ditu giltzarrietan, eta badirudi hilobi bat ere egon zela horman irekia, arku beheratu batekin. Arku horren gainean aro berantiarreko horma-irudi batzuk ageri dira. Erdi ezabatuta daude, eta Kalbarioaren irudia dator irudikatuta, hiru irudirekin: Maria ezkerretara, Jesus gurutziltzatua erdian, eta Joan eskuinetara. Pintura hotirn gainean bi armari; itxura batean, eliza eraikitzeko laguntza emandako kapareen familiena. Hain zuzen ere, horregatik izango omen zuten hil-kapera bat elizaren alde bereizi horretan. Halere, ezer gutxi geratzen da gaur egun hilobi haietatik.

y sin decoración. En su interior se encuentra la portada, formada por un arco de medio punto con una banda que recorre todo el perímetro externo de las dovelas, a modo de marco. Presenta una ornamentación de motivos vegetales geometrizados, una serie de palmetas seriadas, de hoja carnosa. Este motivo lo vemos en la decoración interior del arco y también en su pila bautismal, en el interior de la iglesia.

En el interior de este pórtico encontramos una aguabenditera exenta, arrinconada. Está formada por una pequeña copa de poca curvatura y escasa profundidad, trabajada muy toscamente. Se sostiene sobre una base cilíndrica, con una ligera moldura que la separa del pie.

La iglesia presenta una cubierta de crucería, enalada en la nave central, y bóvedas góticas de crucería en las capillas laterales. La capilla lateral izquierda, con relieves en las claves, parece que cobijó un sepulcro en el interior de una hornacina, bajo un arco rebajado abierto en el muro. Sobre este arco se conservan unas pinturas murales de época tardía, semiborrosas, que representan la escena del Calvario con las tres figuras: María a la izquierda, Jesús crucificado en el centro y Juan a la derecha. Sobre esta pintura destacan dos escudos heráldicos que suponemos que sean de las familias de nobles que colaboraron en alguna fase de la construcción de la iglesia, por lo que dispusieron de una capilla funeraria en esta parte privilegiada de la misma. Hoy, sin embargo, poco queda de las sepulturas que ocuparon este lugar.

Bataiarria / Pila bautismal



Eskuineko kaperan, berriz, bataiarria dago. Kopa handi bat dauka, friso batez apaindua. Goiko apaingarriak, gainera, eliz atarian ageri diren motiboen antzekoak dira, baina modernoagoak. Oinarri karratuko plinto txiki batek eusten dio bataiarriari. Plintoaren harria ez dago horren landua eta beheengo partea zabalxeagoa da.

Testua eta argazkiak: JCE / MLAI

En la capilla de la derecha se encuentra la pila bautismal. Tiene la gran copa gallonada con una cenefa, en su parte superior muy similar a los motivos decorativos que encontrábamos en el pórtico, pero de factura más moderna. Se apoya sobre un pequeño plinto de base cuadrada, de piedra menos pulida y con la parte inferior ligeramente ensanchada.

Texto y fotos: JCE / MLAI

### *Bibliografía / Bibliografía*

LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, p. 360; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, p. 172; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 65-66; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, p. 58; LÓPEZ DEL VALLADO, F., 1921b, pp. 846-851; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, pp. 42, 71; RUIZ DE LOIZAGA, S., 1982, pp. 136-137.